

Hiru urrats

Etxegarate Mendateko saihebidetako hiru urratsetan egin beharreko lana da:

Lehenengo urratsa: N-1 errepidea km batean bikoiztea eta Idiazabalgo Iparaldeko bidegurutzea maila ezberdinean lotune bihurtzea.

- 2.944.959 € inbertsioa.
- 1995ean burutua eta inauguratua.

Bigarren urratsa: Helburu nagusia Idiazabalgo saihebidetako bikoiztea da. Norabide bakoitzean bi errei izango dituen autobia lortu nahi da, lehendik dagoen bidea aprobetxatuz.

- Bikoizturiko tartearen luzera: 3.140 metro.
- Aurrekontua: 8.414.169,4614 €
- Inaugurazioa: 1999ko udaberria

Hirugarren urratsa: Etxegarate Mendatearen bi-

koizteari dagokio, Idiazabalgo hegoaldeko lotunetik hasita Nafarroako mugaraino.

- Ibilbidea: 8.454 metro.
- Aurrekontua: 60 milioi € inguru.
- Egiteko epea: 2003. urterako amaitzea espero dute.

Oraingo bidea mendatea igotzeko erabiliko da, Nafarroako norabidean. Bide berria, lehenengoarekin zerkusia izango ez duen trazadura batekin, jaisteko izango da; beraz, goragotik igaroko da.

Autobide baten antzeko ezaugarriak izango ditu:

- %1,6tik %6ra bitarteko aldapak
- Larrialdietan galgatzeko bideak.
- 250 eta 180 metro bitarteko bi tunel.
- 279 metro luzerako zubi bat.



■■■ Kamioi bi lanean, Etxegarateko saihebidetako proiektuan.

tan lurra hobeto aprobetxatuko da, eta soberako materiala gutxiago izango da.

Lubeta horretan kalitate oneko eta hondakindegira eraman beharreko kalitate baxuko

materiala geruzaka tartekatutuzte. Bide batez, Urtsuaran auzorako sarbide berria egin ahal izango dute lubeta horretan, hasierako proiektuan aurreikusitako zena hobetuz. Lube-


ta horri esker, eta beste aldetatik txiki batzuei esker, igoerako galtzadaren 3,4 kilometroko zatia hobetu dute.

Aldaketa hauek guztiek Etxegarateko saihebidetako egi-

teko lana atzeratu egin dute, baina beharrezkoa da gauzak ondo egitea.

Altsasutik Gipuzkoako mugaraino egiten ari diren autobia Espainiako estatuko

obra garrantzitsuenetarikotzat jo dute, izan ere, aipatu errepide honetan egunero 12.000 auto baino gehiago ibiltzen dira, eta asko pisu handikoak, gainera.



ASFALTOZKO AGLOMERATUAK

ASFALTOS URRETXU, S.A

Deskarga gaina, z/n - 81. P.K
Tel.: 943 72 25 17
Faxa: 943 72 32 57
20700 URRETXU

Jose Artetxe, 1 beheka - 83. P.K
Tel.: 943 15 70 71
Faxa: 943 15 72 13/ 14
e-mail: ayursa@jet.es
20730 AZPEITIA